**0 horas**

· 0 Km. **(1)** Plaza. Yendo de Bilbao a Zeanuri, una vez llegados al pueblo, a mano derecha, y prácticamente enfrente de la iglesia de San Isidro que queda a la izquierda, se inicia una carretera que sube hacia Otzerimendi (hay un cartel indicador de metal) y que termina en la ermita de San Justo. Tomamos esa carretera y tras una pronunciada curva llegamos al barrio de Igertualde integrado por dos bloques de casas de ladrillo rojo.

Enfrente del nº 77, a unos 300 m. del comienzo de la carretera de Otzerimendi y unos 400 m. de la plaza, se inicia a mano derecha un sendero que se interna en el pastizal. Tomar dicho sendero y cuando la cuesta se hace pronunciada hacia la izquierda se deja para seguir una tenue desviación que sigue al frente y va bordeando el terreno. Haciendo caso omiso de alguna desviación a la izquierda, seguir la orientación de bordear el terreno hasta que el camino se empina en una curva hacia la izquierda y llegamos a unos caseríos.



13' · 1 Km. **(2)** Zabalea. Siguiendo el camino, se llega enseguida al cruce con la carretera que va hasta San Justo y que hemos dejado a la altura del nº 77 de las casas de Igertualde para internarnos en el pastizal. En el cruce hay un cartel que pone “Zabala” y enfrente aparece una gran casa de ventanas rojas a cuya altura aparece el cartel “Urizar” al borde la carretera, a la izquierda. Seguimos el suave ascenso de la carretera, y en 12' y a unos 800 m. desde Zabalea encontramos una carretera que desciende hacia la derecha y que tomamos. Dejando a la derecha una desviación asfaltada que desciende, un poco más adelante hay una fuente a mano izquierda del camino. Seguimos adelante y la carretera hace una doble curva con fuerte pendiente pasando entre dos caseríos. Más adelante llegamos a otro caserío que tiene una edificación anexa de uralita y una estructura oxidada de columpio infantil; en ese caserío, dejándolo a la derecha, se inicia una desviación que baja a mano derecha y que tomamos.

43' – 2,8 Km. **(3)** San Lontzo. Atravesamos el pórtico de la ermita en ángulo recto y nos encontramos con un caserío que está justo detrás. Tomamos hacia la izquierda y divisamos un caserío en la hondonada hacia el que nos dirijimos descendiendo bordeando el terreno y luego un cercado. Llegados a este caserío tomamos la carretera que sube hasta encontrar la que asciende de Zulaibar a Urkiste. Tardamos 10' en hacer 700 m. desde San Lontzo hasta este cruce. Cogemos a la izquierda, siempre subiendo por la carretera principal.

1 h. 14' · 5 Km. **(4)** San Miguel. Dejando la ermita de San Miguel a la derecha seguimos subiendo, prescindiendo de una desviación a mano derecha, hasta un grupo de caseríos en lo alto del camino; allí, giramos otra vez a la derecha de forma pronunciada y pasamos entre ellos.

1 h. 30' · 6 Km. **(5)** San Urban. Seguimos la pista que a partir de este momento comienza a bajar prescindiendo de las desviaciones a mano izquierda que vayan apareciendo. Cuando el camino se cierra con una cerca de madera puesta para tratar de evitar la huída de ganado, tomamos bruscamente a mano izquierda y nos encontramos en la puerta de un caserío. Seguimos andando, y a unos 200 m. del caserío volvemos a cambiar de dirección tomando bruscamente una senda a la derecha. Enseguida llegamos a la torre de Axpe.

1 h. 54' · 7,6 Km. **(6)** San Pedro. Ermita situada justo enfrente y convertida en la actualidad en almacén de aperos de labranza. Salimos a la carretera que lleva de Zulaibar a Urkiste, y tomamos a mano izquierda en sentido descendente, bajamos hasta el cruce con la carretera de Bilbao a Vitoria.

2 h. 9' · 8,7 Km. **(7)** Zulaibar. Tomando en el cruce dirección Vitoria, y siempre por camino asfaltado, llegamos al final de nuestro recorrido.

2 h. 29' · 10 Km. **(8)** Plaza.









# PR-BI-2

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | zeanuriko plaza | 0 km | 0' | 5 | san urban | 1 km | 16' |
| 2 | zabalea | 1 km | 13' | 6 | san pedro | 1,6 km | 24' |
| 3 | san lontzo | 1,8 km | 30' | 7 | zulaibar | 1,1 km | 15' |
| 4 | san miguel | 2,2 km | 31' | 9 | zeanuriko plaza | 1,3 km | 20' |
| | | | | | guztira - total | 10 km | 149' |

## 0 ordu

· 0 Km. **(1)** Plaza. Bilbotik Zeanurira goazela, behin herrira iritsitakoan, eskuinaldean, eta ezkerretara gelditzen den San Isidro elizaren aurrean, Otzerimendirantz doan eta San Justo ermitan bukatzen den errepidea hasten da (hau adieraziz metalezko txartela dago).

Errepide hauxe hartu eta bihurgune hestu bat igaro ondoren ladreilu gorrizko bi etxe multzoren artean dagoen Igertualde auzora iristen gara. 77 zk.aren aurrean, Otzerimendira doan errepidearen hasieratik 300 bat metrora eta plazatik 400 bat metrora, eskuinaldean larre artean sartzen den bide-zidorra agertzen da. Bide-zidor hori hartu eta aldapa eskuinalderantz gogortzen hasten denean utzi eta aurrerantz doan sahiesbidea hartu, inguruaren ertzetik doalarik. Ezkerraldean agertzen diren sahiesbideak albo batera utzita, jarraitu inguruaren ertzetik, bidea ezkerraldean dagoen bihurgune batean aldapatsu bihurtzen den arte, halaxe baserri batzuetara iristen gara.

13' · km bat **(2)** Zabalea. Bide jarraiturik San Justora doan eta larrartera sartzeko Igertualde etxeetako 77 zk. parean utzi dugun errepidearen bidegurutzera iristen da berehala. Bidegurutzean "Zabala" jartzen duen txartela dago eta aurreko aldean leiho gorriak dituen etxe handi bat, beronen parean, errepide-ertzean, ezkerretara "Urizar" txartela agertzen delarik.
Jarraitzen dugu goxoki gorantz doan errepidea, eta 12 minututan eta Zabaleatik 800 bat metrora, eskuinaldean beherantz doan errepidea aurkitu eta hartzen dugu. Beherantz doan asfaltatutako sahiesbidea eskuinaldean utzita, aurreratxoago errepidearen ezkerraldean iturria dago. Aurrera jarraitzen dugu eta bi baserri artetik pasatzen den aldapa gogortsua duen bihurgune bikoitza egiten du errepideak. Aurreratxoago uralitazko eraikina itsatsia eta umeentzako zabu-egitura herdoildua duen beste baserri batera iristen gara; baserri hau eskuinaldera utzita, eskuinaldean beherantz doan sahiesbidea hasten da, berau hartzen dugularik.



43' · 2,8 Km. **(3)** San Lontzo. Ermitaren arkupeak angelu zuzenean pasatu eta justu atzeko aldean dagoen baserri batekin egingo dugu topo. Ezkerraldera hartu eta sokonunean ikusten dugun baserrirantz abiatuko gara jaisten, inguruaren ertzetik, eta itxitura bat pasatuz. Baserri honetara iritsitakoan gorantz doan errepidea hartzen dugu, Zulaibartik Urkistera doana aurkitu arte. 10 minutu egiten dugu San Lontzotik bidegurutzera dauden 700 metroak egiteko. Ezkerraldera hartzen dugu, beti ere igonez errepide nagusitik.

1 o. 14' · 5 km. **(4)** San Migel. San Migel ermita eskuinaldean utzita, igotzen jarraitzen dugu, eskuinaldean dagoen baserria albo batera utzita, errepide gainean dagoen baserri multzo batera iritsi arte; han eskuinaldera hartzen dugu eta beraien artetik pasatzen gara.

1 o. 30' · 6 km. **(5)** San Urban. Orain beherantz doan pista jarraitzen dugu, ezkerraldean agertzen diren sahiesbideak albo batera utzita. Abereak ihes ez egiteko dagoen egurrezko hasiarekin topo egiten dugunean ezkerraldera hartzen dugu zakarki eta baserri baten ate aurrean aurkitzen gara. Oinez jarraitzen dugu eta baserritik 200 bat metrora, berriz ere zakarki eskuinaldean dagoen bide-zidorra hartzen dugu. Berehala iristen gara Axpe dorrera.

1 o. 54' · 7,6 km. **(6)** San Pedro. Aurre-aurrean aurkitzen den ermita eta lanabes-biltoki bihurtua gaur egun. Zulaibartik Urkistera doan errepidera irten eta beherantz ezkerraldera hartzen dugu, eta Bilbotik Gasteizera doan errepidearen bidegurutzera iristen gara.

2 o. 9' – 8,7 km. **(7)** Zulaibar. Bidegurutzean Gasteizerako norantza harturik, eta beti ere asfaltatutako errepidetik, gure ibilbidearen bukaerara iristen gara.

2 o. 29' · 10 km. **(8)** Plaza.

